



viii.1. Baldintza hipotetikoetako apodosian * *edin/*ezan* (v *izan/*edun*)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Baldintza hipotetikoetako apodosian **edin/*ezan* (v *izan/*edun*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=8&e=54&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, baldintza, modua, prospektiboa, subjuntiboa

Deskribapena

Euskara estandarrean, eta hainbat hizkeratan, baldintza hipotetikoa adierazterakoan, baldintzazko perpausaren ondoriozko atalean, hots, apodosian, aditz nagusia aspektu prospektiboarekin adierazten da (-*ko* edo -*ren* morfemen bitartez) eta *izan/*edun* erroko aditz laguntzailea erabiltzen da. Hala, (1) adibidean ikusten denez, aditz nagusia aspektu prospektiboa markatzeko -*ko* morfemarekin ageri da (*etorriko*), eta aditz laguntzaileak (*ginateke*), *izan* erroko *alegiatzko* adizki gisa itxuratzen da da, hau da, baldintza hipotetikorako adizki gisa:

(1)	Eguraldi	ona	egingo	balu,
	eguraldi	ona.ABS	egin. PROS	BA.MOD.(3ABS). 3ERG

etorriko	ginateke
etorri.PROS	1PL.ABS.izan. PST.MOD

Ekialdeko zenbait hizkeratan, ordea, testuinguru honetarako ahalerako formak erabiltzen dira, alegia, [aditzoina + **edin*/**ezan*+ -ke] egitura erabiltzen da. (2) adibidean ikusten denez, *etorri* aditz nagusia oraingoan ez da aspektu prospektiboko markekin ageri, eta horren ordezt aditzoina (*etor*) aurkitzen dugu. Bestalde, aditz laguntzaileari dagokionez, *izan* erroko adizkiaren ordezt, **edin* errokoa dugu (*gintezke*):

(2)	Eguraldi	ona	egiten	balu,
	eguraldi	ona.ABS	egin. IPFV	BA.MOD.(3ABS).3ERG
	etor	gintezke		
	etor	1PL.ABS.edin. PST.MOD		

Datu-basearen emaitzak

Gure datu-basean, ipar-ekialdeari dagozkion hizkeretan aurkitzen dugu lekukotuta aldaera hau, hots, nafar-lapurterari eta zuberotarrari dagozkion hizkeretan. Hala, (2) bezalako aldaeraren erabilerearen berri ematen dute Ziburuko, Oragarreko eta Urdiñarbeko erantzunek; ez, ordea, Nafarroako hizkeretako lekukotasunek, ezta ere, handik mendebaldekoek (erdialdeko eta mendebaleko hizkeretakoek) ere.

Eztabaida teorikoa

EGLU II-k (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 380), bi aldaera hauen berri ematen du, gaurko ekialdeko euskalkie dagokiela zehaztuz. De Rijken (2008: 424, 646) gramatikan ere egitura hau jasotzen da, Iparraldeko hizkerari egotziz. De Rijkek azaltzen du hizkera hauetan *ahalerazko baldintza* (zehatzago esanda, ahaleraren forma hipotetikoa) ere indikatiboko baldintza bezala interpretatu daitekeela. Aldiz, ahaleraren semantika adierazi nahi denean *ahal* modalaren bitartez egiten da (*erosten ahal nuke* bezalako egituraren bidez). Egitura honetaz, ikus datu-base honetako 68. kapitulua.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta
Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

